



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Jarduera Fisikoaren eta
Kirolaren Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias de la
Actividad Física y del Deporte

GRADU AMAIERAKO LANA

ESKOLA: EZEZAGUN HANDIA

EGILEA **BIKUÑA URIBEETXEBERRIA UNAI**

ZUZENDARIA **GARAY IBAÑEZ BEATRIZ**

IKASTURTEA **2015/2016**

DEIALDIA **2. DEIALDIA**

AURKIBIDEA

1. <u>Sarrera</u>	3
2. <u>Eskola modernoaren sorrera: eskubidea edo obligazioa?</u>	5
3. <u>Eskolaren helburua eta funtzionamendua</u>	8
Hezkuntza eskolarraren antolamendua: eskolaren tripodea.....	11
Zakurrari soka gehiago eman arren honek ez dio lotuta egoteari uzten....	16
4. <u>Hezkuntza eta eskola: eskolarik gabeko hezkuntza ereduak</u>	24
Munduko herri eta komunitate natiboen hezkuntza ereduak.....	24
Ijito nomaden hezkuntza ereduak.....	29
Marjinaturiko landa-baserri zonaldeetako hezkuntza ereduak.....	32
5. <u>Eskola ezberdintasunaren hiltzaile</u>	34
6. <u>Utopia</u>	38
7. <u>Bibliografia</u>	41

1. Sarrera

Bitztea suertatu zaigun Mendebaldeko gizarteko errealitate konkretu honetan, espezializazioari inoiz izan duena baino pisu handiagoa ari gara eskaintzen. Badirudi errealitatea edo bizitza ikuspuntu global batetik begiratzeko gaitasuna galtzean, bizitzaren zentzua bera ahaztu dugula eta gure bizitzak elkarrekin zer ikusirik ez duten partzelatan zatitu dugula (ikasteko garaia, lanerako garaia, aisialdirako denbora etab.) gure behar naturalak alde batera utziz. Bizi garen zibilizazioa behe laino zerratu baten murgildurik aurkitzen da, noraezean birak emanez haizeak nondik jotzen duen asmatu ezinik. Gu geu ere, beraren parte garelarik zorigaitz berdintsuan murgilduta gaude, ezin burua altxa, ezin gure zorigaitzaz jabetu.

Hezkuntzaren arloa ere ez da gaitz honetatik libratzen eta geroz eta presentzia gehiago hartzen ari dira nora eza hau islatzen duten pertsona “kritiko” edo artikulu “zientifikoak”. Horrela oso ohikoa da hezkuntzaren gaia osotasun batean aztertu ezinik erabat espezializatuak diren gaien inguruko lanak publikatzearen akatsa, hezkuntza metodologia berriekin lotutakoak esaterako. Hau da, “haurren garapen integrala” modu efizienteago batean emateko teknika ezberdinekin hornituriko artikuluak nonahi aurkitu ditzakegu. Esaterako haur baten garapen prozesuan musikaren papera nabarmentzen duten artikuluak. Edo curriculumeko ikasgai jakin bateko gai jakin bat sartu behar den edo kendu behar den. Edo erlijioa irakatsi behar den edo ez. Edo nola gaur egungo teknologia berriek lagun diezaieketen eskolako errendimendua hobetzen.

Heziketa Fisikoaren kasuan ere gauzak ez dira oso ezberdinak, zorigaitzeko espezializazio honek ez digu uzten errealitatea den moduan ikusten eta ezin dezakegu alternatiba errealik planteatu. Bada esaldi bat honela dioena: arbolek ez digute basoa ikusten uzten. Guri ere horrelako zerbait gertatzen ari zaigula iruditzen zait, gure errealitate konkretutik burua jaso ezinik hezkuntza bezalako gai bati sakontasunean erreparatzeko baliabideak galdu ditugula.

Horrela, geroz eta zailagoa egiten zaigu mundu ikuskera jakin bat erakusten diguten betaurreko hauetaz ohartzea eta une batez bada ere betaurrekoak poltsikoan gordez gauzak beste perspektiba batekin ikustea. Gure egunerokotasuna aurrera eramateko aurre egin beharreko egoeretan murgilduta bizitzeak ez digu hormaren beste aldean dagoen errealitatea ikusten uzten eta behin honetaz oharturik gauzak beste modu

batean egin daitezkeela sinesten. Hurrengo lerro hauetan eskuartean daukagun gai potolo eta sakon honi ikusmira edo perspektiba globalago bat ematen saiatuko gara gure “errealitate” partikularretik burua altxatuz eta kentzea horren zailak diren betaurrekoan alde batean utziz.

Horrenbestez, ahaztu dezagun une batez bada ere hezkuntzaren inguruan dakigun dena, eskola ulertzeko daukagun modu guztia, bizitzan “ikasi beharreko” gauzen inguruan esan digutena eta saia gaitzen “normaltzat” hartzen dugun guzti hau kuestionatzen errealitatea beste begi batzuekin ikusi ahal izateko.

2. Eskola modernoaren sorrera: eskubidea edo obligazioa?

Rafael Gonzalez Heck-ek la *Educación Prohibida* dokumentalean aipatzen duen moduan, hezkuntza publikoa, doakoa eta derrigorrezkoa *asmaturia izan zen* historiako puntu jakin batean, aurretik existitzen ez zelarik. “Despotismo ilustratu” deituriko garaian agertu zen hain zuzen ere hezkuntzaren kontzeptu publiko, doako eta derrigorrezkoa aurrera eramango zuen eskola instituzioa. Instituzio hau XVIII. mende bukaera eta XIX. mende hasiera bitartean sortua izan zen Prusiako erregimen autoritarioaren baitan. Prusiar eskola klase eta maila sozialen erabateko banaketan oinarritua zen bere estrukturak obedientzia, diziplina eta autoritateen onarpena bultzatzen zuelarik.

Instituzio honen arrakastaz jabeturik, Estatu guztietako ordezkariak Prusia bisitatzen hasi ziren bertako hezkuntza ereduaren inguruan formatu nahian, ondoren euren lurraldeetara eraman asmoz. Horrela, urte gutxiren baitan eskola moderno honek mundu guztira hedatzeko bideari ekin zion “berdintasuna” eta “hezkuntza guztiontzat” lemapean. Lehen ikusian erabat miresgarria den prozesu historiko hau benetan ote da goraipatzekoa? Hau da, Estatu autoritarioen asmakuntza bat, elite txiki baten estrategia bat “berdintasuna” eta “hezkuntza guztiontzako” bezalako kontsignekin? Ez da oso argia izan behar honen usai txarra hartzeko.

Espaniar Estatuari dagokionez, Pedro García Olivo (2016) historialariak argi azaltzen digu garai hartako egoera. Bere hitzetan gaur egun eskola deitzen diogun instituzioa (derrigorrezkoa, publikoa, doakoa, estandarizatutako curriculumarekin, irakasle-ikasle formatuarekin, ordutegi finkoekin eta ikaskuntza planekin) XIX. mende erdi inguruan iritsi zen Europatik Espainiara garai hartan bizi zen ordena publikoko arazo batekin amaitzeko. Hain zuzen ere urte gutxi batzuetan, 1840 eta 1870 urteen tartean adin tarte jakin bateko haurren itxialdi intermitente sistematikoa ematea erabaki zen, haur hauek gabeziaren bat edukiko balute bezala.

Trabajos elementales sobre escuela primaria liburuan A. Querrienek, M. Foucault-en ikuspuntua aplikatuz eskola modernoaren jaiotza azaltzen du “langile ona” eta “hiritar eredugarria” perfila sortzeko bidean.

“En el contexto de una sociedad industrial capitalista enfrentada a dificultades de orden público y de inadecuación del material humano para las exigencias

de la fábrica y la democracia liberal, va tomando cuerpo el plan de un enclaustramiento masivo de la infancia y de la juventud, alimentado por el cruce de correspondencia entre patronos, políticos y filósofos, entre empresarios, gobernantes e intelectuales. Se requería una transformación de las costumbres y de los caracteres; y se elogió el modelo de un encierro sistemático, adoctrinador y moralizador en espacios que imitaron la estructura y la lógica de las cárceles, de los cuarteles y de las factorías.”

(A. Querrien, 1979).

Adibide txiki bat jartzeagatik eta honen atzean ezkututzen den susmoa berpiztu aldera, Ameriketako Estatu Batuetan garai hartako enpresari ezagunenak (Andrew Carnegie, J.P. Morgan, John D. Rockefeller edo Henry Ford bezalako pertsonak) izan ziren beraien fundazioen bitartez eskolarizazio hau finantzatu zutenak.

Gauzak horrela, haurren itxialdi intermitente honek ordura arte historikoki kultura transmititzeko erabili izan ditugun “bideekin” apurtzen du. I. Illich-ek prozesu hau emateko beharrezkoa izan zen baldintza bat planteatze digu: *haurtzaroaren asmakuntza*. Bere hitzetan eskolarizazioa sistematiko hau aplikatzeko ezinbestekoa da “haur” kontzeptuari beste logika bat ematea:

“Olvidamos que nuestro actual concepto de “niñez” solo se desarrollo recientemente en Europa occidental (...). La niñez pertenece a la burguesía. El hijo del obrero, el del campesino y el del noble vestían todos como lo hacían sus padres, jugaban como estos, y eran ahorcados igual que ellos (...). Solo con el advenimiento de la sociedad industrial la producción en masa de la “niñez” comenzó a ser factible (...). Si no existiese una institución de aprendizaje obligatorio y para una edad determinada, la “niñez” dejaría de fabricarse (...). Solo a niños se les puede enseñar en la escuela.”

Argi azaltzen digute hitz hauek alde batetik “haur” subkultura gizakiok garai jakin batean sortu dugun zerbait dela eta bestetik eskolari erreferentzi eginez pertsonak “haur” moduan kalifikaturik eta bereizirik soilik izan daitezkeela eskolako irakasle baten autoritatearen menpe aritzera kondenatuak.

Orain arte ikusi dugunaren arabera ezin dezakegu ukatu eskola modernoaren sorrera (derrigorrezkoa, publikoa, doakoa eta estandarizatua) historiako puntu

konkretu batean eta sistema ekonomiko eta politiko jakin baten baitan dagoela kokaturik. Hau da, eskolaren historikotasuna argi geratu behar da. Ez da askok uste dugun moduan “betidanik” existitu den kultura transmisio eta hezkuntza bide bat, baizik eta garai jakin baten, testuinguru zehatz baten eta helburu konkretu batzuekin burututako estrategia baten erantzun bat.

3. Eskolaren helburua eta funtzionamendua

Onarturik beraz eskola prozesu historiko bat dela honen sorreraren arrazoietan eta funtzionamenduan sakontzea egokitzen zaigu. Everett Reimerrek (1981) dioskun moduan bere kabuz mantenduko ez litzatekeen teknologian eta produktibitatean oinarritutako gizarte baten ezinbesteko euskarriak dira eskolak. Hau da, ezin daiteke ulertu eskola produkzioan eta kontsumoan oinarritutako gizarte eredu batetatik isolaturik, biak elkarrekin doaz, eskolak sistema eredu horrek behar dituen subjektuen “eraikuntzan” kolaboratzen duelarik. Beste hitz batzuetan esanda gizarte teknologiko eta kontsumista honen *eliza unibertsal* bihurtu da eskola, bere ideologia eta pentsamendua transmititzen, ideologia hori onartua izan dadin pertsonon espiritua moldeatzen eta onarpen horren proportzionaltasun maila berean estatus soziala ematen.

Valerie Walkerdine soziologoak *Enseñanza comprensiva y educación progresiva en Gran Bretaña* artikuluan honela dio: hasiera hasieratik egon zen populazio masen gobernazio eta “eustearen” proiektuaren eta hauen transformazio psikologikoaren proiektuaren arteko konexioa; beti ere langile otzan, mantso eta konformista izaeradun subjektu bat “sortu” nahian. Horrela, eskolak “ohitura on” hauek irakatsiak izan beharreko espazio moduan kontsideratu ziren.

Alberto Mocada produkzio sistemaren itxarongelarekin parekatzen du. Izan ere, eskolek gizarte helduaren antolakuntza erreproduzitzen du, gaztetxoak lider sozialekin errespetagarriak izango diren hiritarrak bilakatzen eta ezer zalantzan jarri gabe hauen lan organizazioekin bat etortzen. Eskolek haurren mundu ikuskera definitzen dute, zer den onargarria eta zer ez, zer de ona eta zer txarra (Moncada, 1991).

Friedrich Nietzschek, eskolak sortu eta urte gutxi batzuetara hartu zion usai txarra “berdintasuna” eta “hezkuntza guztientzat” lemapean zetorren “iraultza” honi. Horrela, 1872an *El porvenir de nuestras instituciones educativas* izenburupean emandako bost konferentzietan argi uzten du Estatuak eskola modernoarekin lortzea nahi duena:

(El Estado) quiere formar lo antes posible a empleados útiles, y asegurarse de su docilidad incondicional. (F. Nietzsche, 1872).

Gure garaietara etorri, UNESCO erakundearentzat lan egiten duen Edgar Morin idazle frantsesak liburu bat atera du XXI eta XXII. mendeko hezkuntza erreformaren inguruan: *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro* (1999). Bertan “mentalitateen erreforma planetarioaren” (p. 58) aldeko apustua egiten du eta hezkuntzaren helburu nagusia giza espeziea “benetako gizadia” bilakatzea dela diosku (p. 42). Zer da baina, horrelako erreforma batek ekarriko lukeena eta jada aspalditxotik ekartzen dabilena? Pedro García Olivok ez dauka zalantza izpirik eta *Escuelas Libres y Democracia* titulupean emandako konferentzia baten argi azaltzen digu. Funtsean eskolen helburua “pentsamendu bakar bat, subjektibotasun bakarra” eratzea da. Hau da, mundu ikuskera bakar bat, gizarte eredu bakar bat (demokrazia), argumentatzeko modu jakin bat, pertzepzio modu jakin bat; orokorrean bizi eredu konkretu bat. Askotan ahaztu egiten zaigu munduan badirela beste kultura edo etnia batzuk erabat ezberdin ulertzen dutela bizitza, berau antolatzeko modu oso ezberdinak dituztelarik. Gai hau aurrerago sakonduko dugun arren iruditzen zait eskolak mundu osora zabaltzen baditugu munduaren dibertsitatearekin akabatuko dugula. Subjektu berdin bat izango da mundu osoan. Azalaren kolorean, arropan edo “kultura” ospakizunetan ezberdintasun txiki eta sinboliko batzuekin baina funtsean mundu ikuskera berdinarekin.

E. Reimerrek (1981) liburuan lau funtzio sozial esleitzen dizkio eskolari gizarte kapitalista honen baitan:

A) Kustodia edo zaintzea

Gaur egun eskolak modu erabat absolutuan arduratzen dira haurrak “zaintzeaz”. Horren barneratua daukagu hau, zaila egiten zaigula irudikatzea iraganean nola egiten ziren gauzak. Haurrek beren bizitzaren zati garrantzitsu bat pasatzen dute eskola barruan edo eskolari eskainitako orduetan, etxerako lanen kasu. John Garner Estatu Batuetako osasun, hezkuntza eta segurtasun sozialeko ministro izandakoak argi dauka eskolarizazioarekin 12 urte luzez irakasten dena, bi urteren buruan erraz ikasi daitekeela eta esfortzu pixka bat eginda urte baten ere bai. Baina eskolak bere baitan daukan ezkutuko curriculum horren denbora gutxian barneratu ote daiteke?

Bestalde Reimerrek (1981) uste du hiri modernoak existitzen jarraitzen badute beharrezkoa izango dela haurren zaintzaz arduratuko den instituzio moduko bat egotea.

B) Paper sozialaren selekzioa

Funtzio honen helburua gazteak helduarora iristen direnean lan munduan kokatzearen da; baina noski, lan hau eskolan erakutsitako errendimenduaren arabera da. Horrela, eskolako arauen barnean ondo “egokitzen” denak eta kalifikazio onak lortzen dituenak lan munduan “hobeak” diren enpleguak lortuko ditu eta alderantziz, eskolako funtzionamendura moldeatu ez den hori gizarteak gutxiago baloratzen dituen lanetara bideratua izango da. Hala ere, ez da eztabaidatzen lana positiboa den edo ez, zeinen mesedetan egiten dugun lan, gure lan indarrarekin zer ari garen bultzatzen etab. bezalako galderak. Argi geratzen da ikasketa prozesuaren ateetan lan mundua hasten dela eta guztiok hori bukatu behar dugula. Horrela eskolak haurtzaroaren eta helduaroaren (lanaren) arteko zubi gisa funtzionatzen dute.

C) Doktrinatzeari

Jhon Holten dioenaren arabera haurrek barneratzen duten lehen gauza ikaskuntza prozesua bizitzatik kanpo dagoen zerbait dela da, hau da, bizitzan zehar bere txoko eta garai partikularra daukala. “Eskolara ikastera zatozte” esaten diegu aurretik ikasten arituko ez balira bezala, bizitza eta ikastearen artean loturarik egongo ez balitz bezala (Holt, 1982). Pedro García Olivok eskolek ikasketa prozesuaren eta hezkuntzaren “lapurreta” egiten dutela diosku.

Ahazten dugu eskolara sartu aurretik haurrak ikasi duela bere gorputza erabiltzen, hizkuntza gutxi gora behera erabiltzen edo bere emozioak kudeatzen. Gauza askotan beraien kabuz maneiatzen ikasi dute. Eskola sartzean aldiz gauzak aldatzen dira. Zer, noiz, nola eta non ikasi beste batzuk erabakitzen dute eta ikasleak hau onartzen ikasten du, beste batzuk direla bere ikasketa prozesuaren iturri. Honekin batera, uste dute zerbait garrantzitsua badago ikasi behar dutena eskola arduratuko dela erakustez. Azken hau guraso askok ere partekatzen dute gainera.

Horrenbestez, irakaslearen paper sinbolikoan epailea, polizia, enpresaburua eta apaiza aurkitzen ditugu eta modu inkontziente batean haurrek obedientziaren balore

hauek barneratzen dituzte, sistemarekin orokorrean ondo eramateko eta beraien bizi eredia konformismoan oinarritzeko.

D) Heztea

Egia da eskoletan ere benetako hezkuntza esperientziak eman daitezkeela. Egia da badaudela irakasle batzuk eskolak eskaintzen dituen limiteetan ere zerbait positiboa egiten dutenak. Baina esperientzia hauek ez daukate eskolaren beharrik, ez diogu eskori eskerrik eman behar horrelako egoerengatik, eskola orduetatik kanpo ematen baitira gehienetan. I. Illichek (1985) honela esaten zuen: *benetako hezkuntza eskola amaitzean hasten da*.

Hezkuntza eskolarraren antolamendua: eskolaren tripodea

Pedro García Olivok, bestalde, *La Gitaneidad Borrada (2016)* liburuan mendebaldeko gizartean sortutako instituzio honi eta bere barruan ematen diren egoerei kritika egiteko *eskolaren tripodea* edo *hiru hankadun metrailadorea* erabiltzen du eta hiru puntu hauen bitartez jaurtitzen du barruan gordea daraman eskolarekiko gorroto guztia:

1. Gela

Aurrez aipatu dugun moduan, hamarkada gutxi batzuetan, adin tarte oso bateko “hezkuntza” itxialdi jeneralizatua ematen da, honela historian zeharreko kultura eta jakinduria transmititzeko moduekin gordinki amaituz. Momentu honetatik aurrera, haurra “giltzaperatu intermitente” moduan definitu dezakegu objektiboki.

Erreforma historiko hau aurrera eraman zutenek, itxialdi sistematiko hau justifikatzeko “haurrak heztearen” arrazoa erabili zuten, baina altura hauetan zaila egiten da horrelako zerbait sinestea. Izan ere, hezteko ez da beharrezkoa giltzaperatzea (Garcia Olivo, 2016). Hezkuntza “gertatu”, “pasatu”, “agertu” egiten da, uneoro eta edozein tokitan, espazio sozialetan zein bakarrik gauden momentuan, hitz egitean, jolasean, bidaiatzen etab. Baina mendebaldeko gizartean hezkuntza bizitzatik banandu dugu eta eskolari aitortu diogu horretarako eskubidea eta monopolioa.

Beraz argi ulertu beharra dago hezkuntzaren eta eskolarizazioaren arteko ezberdintasuna. Hezkuntza egoteko ez da derrigorrezkoa eskolarizatzea eta gaur egun ezagutzen dugun Eskolak, hau da haurren itxialdi partzialak, ez dauka helburu moduan hezte. Entzerramendu honen atzean ezkutaturik aurkitzen den “estrategiak” ondorengo hiru helburu hauek bilatzen ditu:

- Hezkuntza kontrolatzea: bizitzan, edozein egoeretan eman daitezkeen hezkuntza prozesuen artean, eskolan ematen direnak gailentzea eta besteak gutxietea, hezkuntza=eskola gaizkiulertua sinestaraziz. Egia da, eskolan bertan hezkuntza prozesuak eman daitezkeela eta berez ematen dira hemen ere (denbora-espazioko edozein zirkunstantzietan bezala). Hala ere eskolan ikasitakoa beti izango da Sistema konkretu bati edo Estatuari komeni zaiona sistema hau erreproduzitzen jarraitzeko. Horrela, hezkuntza polizia bat sortzen da, jakituriaren selekzio zorrotz bat egiten delarik, beti ere, esan bezala Status Quo-aren mesedetan.
- Haurretan ohitura eta izaera estrukturak sortzea: P. Bourdieu eta J. C. Passeronen (1977) hitzetan eskolak sistema politiko eta ekonomikoa erreproduzitzeko pertsonalitate eraikuntzan parte hartzen du ohitura eta bizi ikuskera zehatz bat proiektatuz. Horretarako, eskolak egiten duen moduan, denbora askoan aritu behar da haurren kontzientzian eragiten.
- Hezkuntzaren instituzionalizazioa eta honen monopolioa eskuratzea: Estatuaren menpekotasuna sortu nahian gurasoei eta komunitateari hezkuntza eskubidea lapurtzea. Horrela norbanakoaren eta kolektiboaren auto-antolamendua eta auto-gestioa baztertua geratzen da eta Estatuaren beharra indartzen da. “Estaturik gabe ez zarete ezer” beldurra sartzea da estrategia honen funtsa.

2. Irakaslea

Ez dago dudarik irakaslea hezitzaile bat denik, baina ez dugu ahaztu behar beste askoren artean dela hezitzaile. Badaude hezitzaile naturalak, hala nola gurasoak edo familiako kideak; badaude hautazko hezitzaileak, artisautzan aditua den norbait edo

gitarra jotzeko abileziadun beste bat esaterako; badaude ausazko hezitzaileak, sortez ezagutu ditugunak eta patuagatik edo, bizitza “markatzen” digutenak beraien istorio, bizimodu edo gertakizunekin; badaude hezitzaile komunitarioak, hezkuntza komunitarioa; badago auto-formazioa, norbera bere kabuz heztea; badago ... Hala ere, Pedro García Oliviloren hitzetan hezitzaile guzti hauen artean badauka irakasleak berezitasun bat: irakasleak “mertzenario” bat da. Mertzenarioa arlo *ekonomikoan*, gizarteko lan duinenaren proklamazioa egiten duelako eta ondoren faktura pasatzen duelako. “Si el maestro es esencialmente un portador y comunicador de verdades que mejoran la vida, un ser inspirado por una visión y una vocación que no son en modo alguno corrientes, ¿cómo es posible que presente una factura?” (Steiner, 2011). Eta mertzenarioa arlo *politikoan*, autoritatearen katean sartuta egonik sistemaren engranajeetako pieza ezinbesteko bat delako. Julio Cortazarren hitzetan bere lema “mandar para obedecer, obedecer para mandar” izango litzateke.

Pedro García Olivok honela azaltzen du bere ikuspuntu “antipedagogikotik” irakaslearen kontu hau:

Desde la antipedagogía se execra particularmente su auto-asignada *función demiúrgica* (“demiurgo”: hacedor de hombres, principio activo del mundo, divinidad forjadora), solidaria de una “ética de la doma y de la cría” (F. Nietzsche). Asistido de un verdadero *poder pastoral* (M. Foucault, 1980 B, p.31), ejerciendo a la vez de Custodio, Predicador y Terapeuta (I. Illich), el Profesor despliega una operación pedagógica sobre la conciencia de los jóvenes, labor de escrutinio y de corrección del carácter tendente a un cierto “diseño industrial de la personalidad”. Tal una aristocracia del saber, tal una élite moral domesticadora, los profesores se aplicarían al muy turbio Proyecto Eugénésico Occidental, siempre en pos de un Hombre Nuevo —programa trazado de alguna manera por Platón en *El Político*, aderezado por el cristianismo y reelaborado metódicamente por la Ilustración. Bajo esa determinación histórico-filosófica, el Profesor trata al joven como a un bonsái: le corta las raíces, le poda las ramas y le hace crecer siguiendo un canon de mutilación. “Por su propio bien”, alega la ideología profesional de los docentes... (A. Miller, 2009).

(P. García Olivo, 2016 p.8)

La sociedad desescolarizada liburuan I. Illich-ek honakoa idatzi zuen:

“[La Escuela] a su vez hace del profesor un custodio, un predicador y un terapeuta (...). El profesor como custodio actúa como un maestro de ceremonias (...). Es el árbitro del cumplimiento de las normas y (...) somete a sus alumnos a ciertas rutinas básicas. El profesor como moralista reemplaza a los padres, a Dios, al Estado; adoctrina al alumno acerca de lo bueno y lo malo, no solo en la escuela, sino en la sociedad en general (...). El profesor como terapeuta se siente autorizado a inmiscuirse en la vida privada de su alumno a fin de ayudarlo a desarrollarse como persona. Cuando esta función la desempeña un custodio y un predicador, significa por lo común que persuade al alumno a someterse a una domesticación en relación con la verdad y la justicia postuladas” (1985, p. 19).

Bestalde, Michael Foucaultek botere erlazioen eta dominazio erlazioen arteko ezberdintasuna teorizatzen du. Lehenengoak edozein sozializazio harremanetan ematen direnak dira: familian, lagunartean, kalean etab. Hauetan botere harremanak egon daitezke, eta gehienetan, gehiago edo gutxiago egoten dira. Hala ere, botere harreman hauek aldagarriak izan daitezke. Ez baduzu nahi kalte egiten dizun lagun batekin egon joan zaitezke, edo defendatu zaitezke. Erantzuteko, erresistentzia egiteko aukera dago.

Dominazioan oinarritutako erlazioetan aldiz, behartuta zaude egoera horretan egotera eta ez dago zure eskuetan rol hauen aldaketa. Bigarren erlazio mota hau da eskola batean irakasle-ikasle artean ematen dena. Ikaslea ezin da joan, ezin du bere dominazio egoera aldatu, hor egon behar da bai edo bai. Harreman mota hau sistemako beste hainbat espazioetan ikusi daitekeenaren berbera da, kartzelen, ospitaleen, lantegien kasu.

3. Pedagogia

Pedagogia, hezkuntzan eta irakaskuntza alorrean aplikagarriak diren teknika eta metodologiaren ikasketaz arduratzen den zientzia bezala ezagutzen da. Hitz hau antzinako “paidagogós” greziar hitzetik dator, paidos (haur) eta gogia (gidatu edo eramán) esan nahi duelarik. Baina norantz gidatu nahi da haurra?

Pedagogiak historikoki izan duen eboluzioa aztertzea nahiko interesgarria den gai bat da. Historikoki hezkuntzaren mundu honek autore ugari eta beste horrenbeste pedagogia eredu utzi dizkigu mahi gainean. Autore hauetako askok hezkuntza eredu tradizionala zalantzan jartzeaz gain hezkuntza metodologia “alternatibo” bat baino gehiago aurkeztu dizkigute horrela mugimendu pedagogiko bat baino gehiago sortu direlarik. Ez dugu askorik sakonduko teoria hauetan baina orokorrean egon diren mugimenduen inguruko laburpen txiki bat ikusiko dugu.

Hortxe daukagu esaterako hezkuntza ulertzeko modu tradizionala gainditzeko asmotan XX. mende hasieran sortu zen Eskola Berria izenez ezaguturiko mugimendua. Hezkuntza prozesua ulertzeko eredu berri honek haurra jartzen zuen ikaskuntza prozesuaren erdian, beraren garapen naturala kontutan izanik. Mugimendu honetan garrantzia handia izan zuten besteak beste Johann Heinrich Pestalozzi, Maria Montessori, Adolfo Ferriere edo Ovide Decroly bezalako autoreen ideiek.

Badira bestalde korrante konstruktibistaren ildotik, jakintza memorizatu baino sortu egiten dela ulertzen zuten autore batzuk ere. Multzo honetan sartu ditzakegu Jean Piaget, Lev Vigotsky edo David Paul Ausbel bezalako autoreak.

Alternatiben testuinguru honen baitan kokatzen da Eskola Libertarioen sorrera ere, Anarkismoaren bultzatzaileen hezkuntzaren adarra izango delarik. Autore ezagunen artean Francisco Ferrer Guardia aurkitzen da. Espainiar estatuaren kasuan bada hezkuntza ulertzeko modu hau geletara eraman duen kolektibo bat ere: Paideia Eskola Librea. Paulo Freire brasildarrak ere ildo honen ildo antzekotik eraiki zuen ikuspuntu dialogikoz ezagutzen den hezkuntza ulertzeko modua.

Bestalde badauzkagu alternatiben bide berdinean 60-70. hamarkadan agertu ziren Roger, Waldorf edo Summerhill bezalako eskola psikoanalistak non pertsonaren ekintza guztiak bere psike edo mentalitatearen ondorio direla uste izanik gure gorputzaren atal hau hezteko proposamena gelatara eraman zutenak. Adibide gisa gaur egun Galizian aurkitzen dugun Opelouro eskola edo Espainia guztiko Waldorf eskolak aipatu genitzazke.

Ikusten denez, hezkuntzaren historian zehar planteamendu asko egon dira “txartzat” hartzen dugun hezkuntza eredu tradizionala gainditzeko. Hala ere, orain ikusiko

dugun moduan, hezkuntzaren pelikula honetako pertsonaia txarra irakasle autoritarioa dela pentsatzea ez da guztiz zuzena. Nietzschek zioen moduan etengabe iragana kritikatzek gaur egungo egoeraren analisia atzeratzea dakar agian inoiz ukituko ez delarik. Horrela, irakasle tradizional edo autoritarioaren kritika errazak gaur egun ikus ditzakegun irakasle “moderno”, “progresista” edo “erreformistaren” kritika ezkututzen du.

Zakurrari soka gehiago eman arren honek ez dio lotuta egoteari uzten

Gai konplexu hau hobeto ulertzeko, ondo etorriko litzaiguke azken hamarkadetan gizarteak hartu duen norabidearen inguruko hausnarketa txiki bat egitea. Izan ere Mendebaldeko erregimen liberalak aurretik inoiz ezagutu gabeko gestio politiko eta antolamendu sozial eredu batean murgiltzen hasi dira. Formazio sozio-politiko honen ezaugarri nagusienak alde batetik gizadiaren “mantsotasun” beldurgarri bat, datorrena onartzea inongo galderarik egin gabe; eta bestetik, aurrerago ikusiko dugun moduan, “ezberdintasunaren” disoluzio progresiboa dira. Hau da, “diferentzia” (kulturala, ideologikoa, existentziala) “dibertsitate” hutsean, berdinen bertsio ezberdinetan, bilakatzearen prozesua.

Era honetara gaur egun indarrean dagoen sistema honen beste ezaugarri ugari ikusten baditugu ohartuko gara “garai bateko” faxismoaren ezaugarri asko betetzen dituela. Hala nola, sistema ereduaren barne hausnarketa baten gabezia, hau da, dagoenaren erabateko onarpena eta oposizioaren gabezia eta sistemaren zabalkuntzaren nahi itsua, “globalizazio” termino itxuraz “neutro” baten baitan.

Hala ere, eredu hau berrikuntza historiko batzuekin azaltzen zaigu. Alde batetik gizadiaren despolitizazio ikaragarria ematen ari da pertsonok demokraziari bizkarra emanez baina era berean bera modu absolutu batean, besterik egongo ez balitz bezala onartuz. Bestalde dinamika autoritarioen ezkutetze progresibo batekin aurkitzen gara. Hau da, garai bateko dominazio eta koakzioa aparatuen “desagertze” (fisiko) bat ematen ari da, honen ordeztu *norbera bere polizia* izatea helburu duen estrategia multzo orokor bati bide emanez. Horrela norberak bere kaiola, era berean sistemak nahi duen kaiola, sortzeaz arduratuko da etengabe, libre denaren

pertzepzio okerra edukiz. Honen inguruan honela mintzatu zen Adous Huxley idazle britainiarra:

“Una dictadura perfecta tendría la apariencia de una democracia, pero sería básicamente una prisión sin muros en la que los presos ni siquiera soñarían con escapar. Sería esencialmente un sistema de esclavitud, en el que gracias al consumo y el entretenimiento, los esclavos amarían su servidumbre”

Adous Huxley (1932)

Eskola ere, e-
struktura konplexu honen parte den heinean, kanpoko beharretara egokitua izan behar da. Horrenbestez, aldaketa e-
struktural batzuk ari da jasaten erreproduzitu nahi duen pertsonalitate perfilaren bila, sistemak nahi duen subjektu horren sorrerarekiko paralelo alegia.

Gauzak horrela, azken urteetan hezkuntza sistemak aldaketa garrantzitsu batzuk jasan ditu. Autoritarismoan, zigorrean eta beldurrean oinarritutako pedagogia beltzetatik, gaur egun edozein klasetan ikus dezakegun pedagogia grisetara (ikasleekin lagun harreman bat sortuz hauei eskolaren beharra sortaraztea etorkizuneko lanaren eta bizitzaren aitzakiarekin), edo “eskola libre” deiturikoetan erabiltzen diren pedagogia zurietara edo erreformismo pedagogikoaren abangoardiara igaro gara. Hala ere, metodoak nabarmen aldatzen ari diren arren ez al da helburua bere horretan mantentzen?

Martin Fierro poetak esaten zuen moduan “zakurrari soka luzeagoa ematearren honek ez dio lotuta egoteari uzten”.

Gaur egun bizi garen Kapitalismoaren fase honek ez du beste barik aurrez aipaturiko “langile mantsoa” eta “hiritar ona” besterik gabe behar, baizik eta, hiritar asertiboa, ekintzailea, antolatua, irudimen eta sormen handiko pertsona da engranaje konplexu hauek egoki funtzionatu ahal izateko behar dena. Beti ere nola ez, emandako guztiaren erabateko onarpenarekin, sistemaren instalazioen baitan eta bizitza “komodo” baten desiran. Hau da, XXI. mendeko Mendebaldeko pertsona “ideala”.

Makineria politiko eta ekonomikoaren eskakizunetarako subjektuaren perfil honetarako hala ere, eskola tradizionalak ez du balio; hezkuntza erreformatu baten

beharra dago, hezkuntza sistema “alternatibo” (berez ez horren alternatibo) bat da erreproduzio horren oinarritzko elementua. Gaur egun alternatibo eran planteatutako eredu hau izango da etorkizuneko “Eskola ofiziala”.

“Erreforma” hau gainera, ezkerreko zein eskuineko ideologiaren eskakizunekin bat datorren “pozoidun goxoki” bat da (Walkerdine, 1991) eta pentsamendu ezkertiarreko pertsona askorentzat pedagogia modu honek autoritarismoengatik askatzeko bide bat suposatzen duen arren, haur hau inoiz ikusi duguna baino kontrolatuago, erregulatuago eta manipulatuago ari da izaten.

Escrituras ahuyentables (2007) liburuan “erreformismo pedagogiko” honen ezaugarri nagusiez mintzo da Pedro Garcia Olivo. Herman Hessek bere *El lobo estepario* idatzian “no apto para cualquiera” abisatzen zuen moduan Lautréamont poeta frantsesaren esaldi bat erabiltzen du Pedro Garcia Olivok liburuko aurkezpenaren lehen buruan:

“Quien quiera que seas, defiéndete;
pues voy a dirigir contra ti la honda de una terrible acusación”

Lautréamont

Badaezpadako abisu honen ondoren, zehaztasun handiarekin definitzen ditu esan bezala puntuz puntu “erreformismo pedagogikoaren” ezaugarriak eta hauen atzean ezkututzen diren trikimailuak:

a. Irakaskuntzaren erabateko onarpena eta ondorioz ikasleen asistentziaren gutxi gora beherako kontrola.

Hezkuntza tradizionalaren aldean “disimulatuago” egon arren (ez da zerrenda pasatzen) eskolara joatea beharrezkotzat hartzen da. Pedagogia erreformista guztiak itxialdiaren kontzeptua onartzen dute berau zalantzan jarri gabe. Horrela, aurrez aipaturiko itxialdiaren helburu hirukoitza betetzen jarraitzen da: dominazio gutxiago dagoen eskolaz bestelako hezkuntza eta kultura transmisioen artean abantaila garbi bat lortzea; metodologia eta lan ereduaren arabeko ohiturak sortzea beraien pertsonalitatea moldatuz; hezkuntza administratzearen ideia ziurtatu eta Estatuarekiko menpekotasuna handitu.

Bestalde, “hezitzaile” batzuen bitartez haurrari “irakatsi” egin behar zaiola modu absolutuan onartzen da. Honen inguruan honela mintzo da Pedro Garcia Olivo idatzi berdinean:

“Es la idea de que compete a los «educadores» (parte selecta de la sociedad adulta) desarrollar una importantísima tarea en beneficio de la juventud; una labor “por” los estudiantes, “para” ellos e incluso “en” ellos -una determinada operación sobre su consciencia: «moldear» un tipo de hombre (crítico, autónomo, creativo, libre, etc.), «fabricar» un modelo de ciudadano (agente de la renovación de la sociedad o individuo felizmente adaptado a la misma, según la perspectiva), «inculcar» ciertos valores (tolerancia, antirracismo, pacifismo, solidaridad, etc.)” [...]En razón de qué está capacitado un educador para tan “alta” misión? ¿Por sus estudios? ¿Por sus lecturas? ¿Por su impregnación «científica»? ¿En razón de qué se sitúa tan “por encima” de los estudiantes, casi al modo de un «salvador», de un sucedáneo de la divinidad, «creador» de hombres?, ¿En razón de qué un triste funcionario puede, por ejemplo, arrogarse el título de forjador de sujetos críticos?

Idealismoan erori ezean oso zaila egiten da galdera hauentzako erantzun bat aurkitzea.

b. Ikasgai zerrenda ofizialaren erabateko edo zati baten ukapena eta “beste baten” ordezkapena.

Ferrer Guardiak esan zuenaren arabera curriculum ofiziala ideologikoa eta propagandistikoa da, sistemaren produktu bat da berau erreproduzitzeko. Baina berau “beste batengatik” aldatzeak sistemaren erreprodukzio horren amaiera esan nahi al du? Gai zerrenda edo curriculum “berri” hau irakasleak berak sortu dezake, edo irakasle erreformista multzo batek, edo adostutako modu batean irakasle eta ikasleek, edo ausardia asko izanik ikasleei beraiei utz diezaiekegu sortzen.

Hala ere, kasu gehienetan, gai zerrenda berri hauek berriz ere itxiegiak eta dogmadunak izan ohi dira eta gainera Reimerrek (1981) eta Illichek (1985) gogorarazten diguten moduan pedagogia esplizitua aldatu arren (gai zerrenda,

edukiak, mezuak) pedagogia inplizitua ez aldatzen: asistentzia derrigortua, rolen esleipena, izaeraren normalizazioa etab. Ondorioz curriculumaren aldaketa, izan ikasleak partaide edo ez, ez da baliagarri hezkuntzaren transformazioan, izan ere eskola eremuko pedagogia inplizituaren sareetan erortzen baita preso.

c. Klaseetako dinamikaren aldaketa.

Hezkuntza eredu tradizionalen horren ohikoa den irakaslearen diskurtso magistral bitarteko transmisioa sinplea gainditzeko erreformismo pedagogikoak teknologia berrien (ikus-entzunezko bitartekoak, sare birtualak etab.) aldeko eta asanblada, talde lan, tailer edo ikasleen aurkezpen dinamikaren aldeko apustua egiten du. Beste behin ere ikaslearen pasibotasunarekin amaitzeko estrategia bat daukagu eskuartean.

Dinamika aldaketa hau pertsona baten, irakaslearen, inposizioa bat izateaz gain, berriz ere eta Vogt eta Mendelek argi adierazten duten moduan, teknika berri hauen onarpenak eskola sistema eta orokorrean sistema sozial guztiaren onarpena dakar eta ez du beraren klase sistemarekin amaitzen.

d. Ebaluazio tradizionalen (errepikapen-memorian oinarritutako azterketak) ukapena.

Ebaluazio mota hauek “jarrera”, “konpetentzia”, “abilezia” etab. bezalako gaitasunak baloratuko dira dramatikoagoak diren beste azterketa ereduen ordean. Bestalde ikasleen parte hartzea bultzatzen da ebaluazio metodologia zein kalifikazio sistema erabakitzeko orduan. Horrela pedagogia erreformistek azterketaren ezbeharra murrizten dute baina ez dute honekin amaitzen, izan ere azterketak hor jarraitzen du, kalifikazioa, ebaluazioa ez da desagertzen eta pedagogiaren ardatz garrantzitsuenetako izaten jarraitzen du, bai esplizituarena eta baita inplizituarena ere.

Bestalde ikasleak ebaluazio sisteman parte hartzeak (izan ikasle eta irakasleen artean adostutako nota baten bitartez, izan klase osoak emandako kalifikazio bitartez, izan arrazoitutako auto-kalifikazio moduan) “azterketaren ideologiaren” erabateko etsipena eta onarpena dakar ikasleen partetik eta nola ez instituzioaren arrakasta borobila: ikasleak ebaluazioaren biolentzia sinbolikoa barneratzea modu

normal batean; sortzen duen ezberdintasunaren eta banaketaren jokoaren erabateko onarpena; eta horrela kasua tokatzen denean norberari zigortzea ebaluazioaren ankerkeria intrintsekoa ezkutatzuz. Horrela jada gure gizarteak horrenbeste behar duen aurrez aipaturiko *norberaren polizia* perfila lortuko litzateke.

Hona hemen laburturik demokrazia bere osotasunean hartzen ari den bidea. Zaintza eta koakzio aparatuen fisikoen murriztea, bere agenteak kamuflatu eta Errepresio Zaharrarenak ziren ardura hauek indibiduoarengan delegatzea, “normaltasun”, “ardura”, “gizartearekiko konpromiso” edo “hezkuntza” bezalako karga sinbolikoen bitartez.

e. Ikasleen parte hartzearen bultzatzea instituzioko kudeaketan.

Ikasle oinordeko bitartez Klaustro, Junta, Kontseilu eta abarretan parte hartzea “hezkuntzaren demokratizazio” bidean. Dena noski, eskola instituzioaren legeen eta protokoloen barruan, berriz ere sistema honen legitimitatea indartzen dugularik.

Laburbilduz, erreformismo pedagogikoaren bitartez, hezkuntza administratua jasangarriago egiten da eta eskolak modu lasaiago batean, ia bere biktimen esker onarekin, burutu dezake bere funtzio soziala (ezberdintasun soziala erreproduzitu, mendebaldeko gizarteko ideologia onartu, aurren izaera kimatu). Erreformismoak instituzioaren errendimendu ideologikoa optimizatzen laguntzen du. Eta ez hori bakarrik, bide honekin, Demokraziak ikasleari utziko dizkio norberaren koertzio ardurak, horrela instituzioaren eta irakaslearen dominazio makinaria difuminatuz.

“Jainko maitea! Zer ari dira gure seme-alaben buruarekin egiten!” atsekabetzen zen faxismo betean ama alemaniar bat. Gaur egungo gurasoak ez ote dira ba ezbehar berdina pairatzen ari?

Bertolt Brecht-ek bestalde berak ondoen dakien moduan deskribatu zigun sistema hartzen ari den norabidea:

“-Si los tiburones fueran hombres –preguntó al señor K. la hija pequeña de su patrona–, ¿se portarían mejor con los pececitos?”

-Claro que sí –respondió el señor K–. Si los tiburones fueran hombres, harían construir en el mar cajas enormes para los pececitos, con toda clase de alimentos en su interior, tanto plantas como materias animales. Se preocuparían de que las cajas tuvieran siempre agua fresca y adoptarían todo tipo de medidas sanitarias. Si, por ejemplo, un pececito se lastimase una aleta, en seguida se la vendarían de modo que el pececito no se les muriera prematuramente a los tiburones.

Para que los pececitos no se pusieran tristes habría, de cuando en cuando, grandes fiestas acuáticas, pues los pececitos alegres tienen mejor sabor que los tristes. También habría escuelas en el interior de las cajas. En esas escuelas se enseñaría a los pececitos a entrar en las fauces de los tiburones. Estos necesitarían tener nociones de geografía para localizar mejor a los grandes tiburones, que andan por ahí holgazaneando. Lo principal sería, naturalmente, la formación moral de los pececitos. Se les enseñaría que no hay nada más grande ni más hermoso para un pececito que sacrificarse con alegría; también se les enseñaría a tener fe en los tiburones, y a creerles cuando les dijese que ellos ya se ocupan de forjarles un hermoso porvenir. Se les daría a entender que ese porvenir que se les auguraba sólo estaría asegurado si aprendían a obedecer. Los pececillos deberían guardarse bien de las bajas pasiones, así como de cualquier inclinación materialista, egoísta o marxista. Si algún pececillo mostrase semejantes tendencias, sus compañeros deberían comunicarlo inmediatamente a los tiburones. “

“Habría hermosos cuadros en los que se representarían los dientes de los tiburones en colores maravillosos, y sus fauces como puros jardines de recreo en los que da gusto retozar. Los teatros del fondo del mar mostrarían a heroicos pececillos entrando entusiasmados en las fauces de los tiburones, y la música sería tan bella que, a sus sonos, arrullados por los pensamientos más deliciosos, como en un ensueño, los pececillos se precipitarían en tropel, precedidos por la banda, dentro de esas fauces. Habría asimismo una religión, si los tiburones fueran hombres. Esa religión enseñaría que la verdadera vida comienza para los pececillos en el estómago de los tiburones. Además, si los tiburones fueran hombres, los pececillos dejarían de ser todos iguales como lo son ahora. Algunos ocuparían ciertos cargos, lo que los colocaría por encima de los demás. A aquellos pececillos que fueran un poco más grandes se les permitiría incluso tragarse a los más pequeños.

Los tiburones verían esta práctica con agrado, pues les proporcionaría mayores

bocados. Los pececillos más gordos, que serían los que ocupasen ciertos puestos, se encargarían de mantener el orden entre los demás pececillos y se harían maestros u oficiales, ingenieros especializados en la construcción de cajas, etcétera. En resumen: si los tiburones fueran hombres, en el mar habría por fin una cultura.”

Bertolt Brecht, 1975

4. Hezkuntza eta eskola: eskolarik gabeko hezkuntza ereduak

Eskolaren historikotasuna, sortzearen arrazoiak eta honen funtzionamendu tradizionala eta “moderno” ikusi ditugu, baina bat baino gehiago galdetuko da ea eskolak sortu aurretik zein tokitan edo nola hezten zen jendea. Askok pentsatuko dugu gainera eskolak ez zeudenez ez genuela hezkuntzarik jasotzen. Hala ere planteamendu hau oker eginda dagoela ikusiko dugu.

Izan ere, eta Reimerrek (1981) ondo azaltzen digun moduan *hezkuntza* eta *eskola*, *osasuna* eta *ospitalea*, *justizia* eta *epaitegia* hitzak ezberdinak izanik, sinonimoak eta banandu ezinak direla pentsatzera iritsi gara. Jendea ahaztu egiten da eskolak egon aurretik ere bazeudela pertsona jakintsuak, edo ospitaleak egon aurretik pertsona osasuntsuak zeudela. Hitzak berdintze honek ez digu uzten hasieran aipatutako betaurrekoak kentzen eta hezkuntza eskolatik kanpo kokatzen. Hezkuntza hitza entzuten dugun bakoitzean eskola bat, irakasle bat, eta ikasle talde bat irudikatzen dugu gure barrenean. Horrela eskolak hezkuntza hitza bereganatu du eta sinestarazi digu bera dela berau “eman” dezakeen bakarra.

Hala ere, hezteko ez da derrigorra giltzaperatzea (Garcia Olivo, 2016). Lehentxeago aipatu dugun bezala hezkuntza “gertatu”, “pasatu”, “agertu” egiten da uneoro eta edozein tokitan, espazio sozialetan zein bakarrik gauden momentuan. Hala ere, gure gizartean, Mendebaldeko kulturaren hezkuntza bizitzatik banandu dugu eta eskolari aitortu diogu horretarako eskubidea eta monopolioa.

Hezkuntza beste perspektiba batetatik ikusteko historian zehar egon diren eta gaur egun oraindik toki batzuetan mantentzen diren eskolarik gabeko hezkuntza eredu batzuk ikusiko ditugu jarraian.

Munduko herri eta komunitate natiboen hezkuntza ereduak

Nazioa Batuen Erakundeak munduan 5.000 komunitate indigena daudela dio, 370 miloi pertsona guztira munduko bost kontinenteetako 70 estatutan banaturik. Guztiak ikertzea oso interesgarria izango litzatekeen arren, analisi hau egiteko Mexikoko Oaxaca departamenduko San Juan Juquila Vijanos herrixka hartuko dugu adibidetzat, Pedro Garcia Olivoren *La bala y la escuela* liburuan komunitate honetako “hezkuntza ereduak” deskribatzen baita eta ezin hobeto datorkigu hezkuntzaren ikerketa hau egiteko. Herrixka hau oraindik nahiko tradizionala da eta

betidanik aurrera eramaten den bizi ereduak indar handia dauka. Hala ere Mexikoko Estatuaren eta orokorrean Kapitalismoaren zantzu batzuk agertzen dabiltza herri honen kultura suntsitzeko arriskua berarekin dakarrelarik.

Herri konkretu honetako egoera erabat jeneralizatu ezin den arren, esan beharra dago orokorrean komunitate natibo gehienetan esanguratsuenak diren ezaugarri historikoak ez direla askorik aldatzen eta beraz hemen aztertutakoak balioko digula munduko beste komunitate askotako "hezkuntza eredu tradizionala" ulertzeko. Kontutan izan behar dugu hasi aurretik herrialde hauetako asko zapalduak, suntsituak, esklabutzara behartuak, torturatuak, erailak eta abar luze bat izan direla historian zehar eta beraz gaur egun bertako "hezkuntza eredu" ez dela garai baten kanpo mehatxu gabe zeukatenaren berdina. Guk herrialde askok garai batean izan zuten eta beste askok oraindik mantentzen duten "hezkuntza eredu" horren inguruan jardungo dugu.

Honetan sakondu aurretik, aipatu beharra dago komunitate hauek ez daukatela esplizituki "hezkuntza sistema" bat eta bere baitan funtzioak, ardurak, helburuak etab. bereizirik. Kontzeptu guzti hauek eskolaren logikaren baitan kokatzen dira soilik. Horrela, "herri natiboen hezkuntza eredu" guk, mendebaldeko gizartekook, beraien sozializazio praktikak, interakzio eta elkartrukatze prozesuak eta kultura trantsizio moduak sistema baten baitan ixteko asmatu dugun kontzeptua da, beraien terminoa arrotza egiten zaielarik.

Izan ere, komunitate hauetan hasieran aipatu dugun Kapitalismoaren oinarri den bizitzaren banaketa ez da ematen. Guri oso normala egiten zaigun oinarrizko banaketa bera ere (politika, ekonomia eta erlijioa) ez da hauen kasuan existitzen. Bizitza bere osotasunean ulertzen dute, eta guk egin dugun bizitzaren sistematizazio eta deskonposizio hau ez dator bat beraien oinarrizko unitate den bizi ikuskerarekin.

Hau abiapuntutzat eta ardatz moduan harturik, kontutan hartu behar dugu komunitate hauetan bizi eredu bera dela hezkuntzaren iturri, beraien egunerokotasuna aurrera eramaten ematen diren sozializazio harremanak, asanbladak, erritualak, mito eta kondaira kontakizunak, ipuinak, hitz trukaketak eta abar bilatzen dira hezkuntzaren zutabe.

Herri hauetan hezkuntza nola “gertatzen” den ulertzeko herri hauen ezaugarri nagusi batzuk gainetik azaltzen saiatuko gara beraien bizi ereduaren inguruko ezagutza minimo batzuk izateko.

Komunitate honetako antolamendu politikoa antropologoek “kargu sistema” moduan definitzen dutena da. Formula politiko honen oinarria Herritarren Batzarra edo Asanblada da (gutxienez familiako “delegatu” batek parte hartzen duelarik) eta bertan hartzen da komunitateari eragiten dion edozein erabaki. Urteko lehen batzarrean urte horretarako kargu publikoak hautatzen dira botazio bitartez eta aurretik, garrantzia gutxiagoko postuetan, izan duten esperientzia erreparatuz. Kargu hauek esan bezala txandakakoak dira eta ordainsari gabekoak. Beraz edonork dauka aukera (ez bakarrik kargu publikoek) edozein iniziatiba, ideia, arazo edo kezka asanbladan planteatzeko. Zapatisten lema batek dioen moduan “agindu obeditzen” filosofia da herrialde hauen izaera markatzen duena. Herrialde hauetan horrenbestez ez dago partidu politikorik, ezta honek dakarren errepresentazio sistemarik ere.

Horrela, komunitateko kide guztiak 15 urtetik aurrera antolamendu honetako postuak hartzen hasten dira, hasiera batean ardura gutxiagokoak eta 25 urtetik aurrera pisu gehiago daramatzatenak. Beraz, kargu ezberdinak hartzen doazen heinean komunitateko bizitzaren jakinduria arloak ezagutzen hasten dira (bertako medikuntza tradizionalaren funtzionamendua, eraikuntza publikoen mantentze lanak, herritarrekin harremanak lantzeko bideak, inguruko herrixkekin harremanak sortzea etab.). Modu honetara, antolamendu politikoa bera eta bertan parte hartzea bilakatzen da hezkuntza iturri. Sistema politiko bera da transmisio kulturala eta sozializazioa ahalbidetzen duen erreminta, partaideak bizikidetzako baloretan hezten, sozializatzen eta kultura irakasten. Hau guztia modu inplizitu batean eta bizitza osoan zehar, jaiotzetik azken arnasa eman arte.

Modu honetara, hezkuntza komunitatearen “opari” bezala ulertu daiteke, helburu moduan komunitateko partaidearen eta komunitatearen beraren ongizatea, “bizitza ona” eta zorientasuna bilatzen duelarik, bestelako bigarren helbururik gabe. “Herri indigenen hezkuntza ereduak” beraz zorientasuna du helburu Eskolak Estatua edo Sistemaren indartzea duen moduan.

Horrenbestez, “hezkuntza eredu” honetan ez dago “irakaslerik” ezta “ikaslerik” ere. Herri osoa, komunitate osoa (guraso, aitona-amona, bizilagun, pertsona helduenak)

bihurtzen da hezitzailea. Beraz, denak badira hezitzaile argi geratzen da ez dagoela “irakasle” kargu edo ofizioa. Egia da, komunitateko pertsona zaharrenak direla hezkuntza transmisio honetan “prestigio” handiena daukatenak baina ez dekretuz, eurek urteen eta jakinduriaren poderioz irabazia eta herriak errekonozitua baizik.

Komunitate hauek bereizten duen beste ezaugarri bat lurraren jabego komunalarena da, hau da, “lurra denena da eta lurra ez da inorena”. Hala ere, familia bakoitzak lur landa bat lantzeko eskubidea dauka, bertatik bizitzeko elikagaiak eskuratzen dituelarik. Baina lur hau saltzeko eskubiderik ez dauka, lurra ez baita inorena, lurrak ez du jaberik.

Familia guztiek bizitzeko lur eremu bat erabili behar izatean, ez dago gure gizartean ikus daitekeen ezberdintasun ekonomiko handirik, eta beraz ezta ezberdintasun sozialik edo gizarte zatiketarik ere. Horrela, denek norabide berdinean egiten dute arraun, partidu politikoen presio gabe eta herriaren interes orokorragatik. Kontu honek gainera gure gizartean horren ohikoak diren “interes komunen” diskurtsoaren inguruan hausnartzeko balio digu. Hau da, nola hitz egin “interes orokorragatik” gizartea klasetan banatuta dagoenean? Zein da, esaterako, langileen eta enpresarien “ongizate komun” hori?

Bestalde, komunitatean “sortzen” den hezkuntza hau komunitatearentzat da. Hau da, komunitateak bertan, herrian nahi ditu herritarrak, herria aurrera ateraz. Horrela lokaltasunak ezinbesteko garrantzia hartzen du bizitzan: nekazaritza lokala, klimatologia lokala, fauna eta flora lokala, geografia lokala, hizkuntza lokala, historia lokala, ohitura lokalak, eskubide lokalak eta abar.

Bizi eredu honek bestalde, herriaren ongizate edo zoriontasun honetan kanpoko inork “lagundu” ezin duela erakusten du. Hau da, soilik komunitateak berak aurkitu eta deuseztatu dezake herritar batek edo komunitateak berak daukan arazoa. Kanpo botereak, Estatuak (poliziak, epaileak) ezer gutxi egin dezake herriaren armonia desorekan jarri duen gertaera bat saihesteko. Komunitate hauek beraz ez dute Estatuarenganako menpekotasunik, ez daukate bere beharrik, burujabetasunean oinarritutako bizi eredua baitaukate.

Juquila Vijanos komunitateko eta Oaxacako Indigenen Batzordeko kideak honela azaltzen du beraien egunerokotasunean oso garrantzitsuak diren “tequio” eta “gozona”-ren zentzua:

“- Acá estamos acostumbrados al tequio para realizar los trabajos del pueblo. Cuando una Autoridad llega a necesitar gente, convoca a todos los ciudadanos de la comunidad a realizar los trabajos del pueblo, ya sea limpiar caminos, desmontar lo que es de la carretera (“desmontar” decimos nosotros; porque la Autoridad que termina su año tiene su obligación ir a limpiar la carretera), y limpiar los caminos, para que él ya deja todo limpio a otra Autoridad que entre. O sea, a todo eso lo llamamos ‘tequio’.

- Es decir, que el Municipio, en lugar de contratar a alguien para que haga esas tareas...

- Sí, lo hace el pueblo...

- ¿Sin cobrar nada?

- Sí, sin cobrar nada.

- ¿Todos juntos?

- Todos juntos... Antes se hacía tequio también cuando se hacía un edificio público; por ejemplo, cuando se hizo el Palacio municipal todavía se hacía tequio... En los últimos años es poco lo que es el tequio, porque quieren quitar esa costumbre, que se haga tequio; pero la mayoría no quiere que se quite esa costumbre... Es muy difícil que se quitara, porque ya están acostumbrados a trabajar así...

- ¿Y qué es la gozona?

- Para nosotros la gozona es para... Por ejemplo, tengo un vecino, ¿no?, voy un día de él a trabajar, y ya va conmigo... Así es, ya van conmigo, ya voy con ellos. Eso en la gozona... Yo mi vecino le voy a ver: “ven a trabajar conmigo porque no tengo ayuda. Hacemos gozona... El va de conmigo dos, tres días; y ya le repongo yo luego los días que trabajó conmigo...

- De ese modo, no se contrata a ninguna persona...

- No, ya no se contrata. Somos gente de escasos recursos; entonces, ya con la gozona nos evitamos de dinero... Y así funcionamos unos con otros, cooperamos... Aquí no hay gente contratada: ya con la gozona tenemos, pues; resolvemos los trabajos...”

Laburbilduz, esan genezake egunerokotasuneko bizitza dela herri hauetan hezten duena, sozializatzeko baloreak, bizirauteko gaitasunak eta zoriontsu izateko baliabideak erakusten dituena. Garcia Olivok (2008) horrela laburtzen du:

Como modalidad de organización igualitaria, de sociedad no-clasista, la comunidad “indígena confiere a sus formas de cotidianidad una funcionalidad semejante, pero ya no al servicio del dominio, sino de la educación. La esfera cotidiana del pueblo indio es el ámbito en el que la educación comunitaria se refleja y se refuerza; cada una de sus figuras sociales, de sus maneras de interrelación, de sus dinámicas gregarias, remite a un trabajo previo de socialización y moralización por el grupo y, al mismo tiempo, lo completa, lo última, lo realiza en su expresión más acabada. Lo que en una sociedad de clases, como la occidental, sirve para la reproducción de la desigualdad y para la profundización de la opresión, en el “pueblo de indios” comunero alimenta sin descanso, reactiva, el proceso informal de auto-educación para la justicia social y para la democracia política.”

Ijito nomaden hezkuntza eredua

Aberririk gabeko herri honen historia sakonean ikertzea oso interesgarria izango litzatekeen arren, ez gara horrenbeste luzatuko eta zuzenean erromanien idiosinkrasia historiko edo tradizionalaren ezaugarri nagusiak ikusiko ditugu beraien transmisio kulturala hobeto ulertze aldera. Ikusiko dugun moduan, ijitoen “hezkuntza ereduak” parekotasun handiak ditu herri indigenen ereduarekin.

Lehen ezaugarria eta dudarik gabe euren izatea markatzen duen bereizgarri nagusia *nomadismoa* izango litzateke, hau da asentamendu fisikorik ez izatea eta herrialde ezberdinetan zehar bidaiatzen ibiltzea. P. Kropotkin (1897) eta F. Engels (1884)

idazleentzat *sedentarizazioa* gure gizarteko “gaitz” askoren iturria da. Herrixketan asentatzearen prozesu honek herritarren artean eta herrien artean bultzatutako erlazio ekonomikoen ondorioa da klase banaketa, jabetza pribatua, dominazio soziala eta denborarekin Estatu bilakatuko ziren entitate burokratikoaren sorrera. Horrela herrialde nomadetaren errekurtsoen jabetza pribatu gabeko eta honen ondorio den berdintasun sozial eta barne eskuzabaltasun eta elkar laguntzan oinarritutako bizikidetzaren ereduak garatzen dira.

Kultura honen beste ezaugarri bat eta hau ere erabat nabarmentzekoa herri hau ahozko transmisioa kultural baten oinarritzen denarena da. Eta aurrez azaldu dugun moduan ahozkotetasun hau ez da gabekia bat, ez da inperfekzio bat, modalitate partikular bat baizik, mundua ulertzeko beste modu bat, erlazionatzeko beste eredu bat, pentsatzeko beste tresna bat etab. eta inondik inora gure kultura idatziarekiko atzerapen bat. Gainera ahozkotetasun honek W. Ong-en (1997) hitzetan komunitate harremanak indartzen ditu:

“En una cultura oral, la restricción de las palabras al sonido determina, no solo los modos de expresión, sino también los procesos de pensamiento (...). Con la ausencia de toda escritura, no hay nada fuera del pensador, ningún texto que le facilite producir el mismo curso de pensamiento otra vez, o aun verificar si lo ha realizado o no (...). ¿Cómo, de hecho, podría armarse inicialmente una extensa solución analítica? Un interlocutor resulta virtualmente esencial: es difícil hablar con uno mismo durante horas sin interrupción. En una cultura oral, el pensamiento sostenido está vinculado con la comunicación” (p. 4).

Asko dira nomadismo eta ahozkotetasun ezaugarri hauetaz gain erromani kultura hau definitzen dituzten faktoreak (lan alienatuaren ukapena, komunitate sentimendua, produktibitate kapitalista eza, Estatuaren eta bere makinaria guztiaren ukapena eta abar) baina bakoitza aztertzea luze joango litzaigukeenez zuzenean beraien hezkuntza transmisio eredu ikustera pasako gara. Hau ikustean konturatuko gara Herri Indigenen hezkuntza ereduaren oso antzekoak diren ezaugarriak dituela honek ere.

Puntuz puntu azalduta, Mendebaldeko kulturako Eskola formatuaren erabat aurkakoa den ijitoen hezkuntza eredu honen ezaugarriak hauexek dira:

- a) Komunitatean, komunitatearentzat eta komunitatearen bitartez “gertatzen” den hezkuntza eredua da: kolektibo osoak hezten du kolektibo osoa bizitza guztian zehar. Komunitateko edonor izan daiteke maisu taldearen beraren miresmena irabazi badu. Hala ere normalean helduetan erortzen da jakinduriaren “zama” hori, izan ere *denbora gehiago pasa dute jakinduriaren iturritik edaten*. Horrela eskolan ematen den irakasle-ikasle harreman instituzional horren ordean, lotura moral batean oinarritutako maisu-dizipulu harremana izango genuke.
- b) Bat bateko erlazioetan eta informaltasunean oinarritutako hezkuntza ez administratua eta beraz librea. Testuinguru honetan hezkuntza “arnastu” egiten da. Kasu honetan ere aurrez aipaturiko botere harremanak eman arren jada ez dira eskola dominazio harreman izango. Izan ere dizipuluak edo aprendizak defentsa aukera edo abaguneak baititu erlazio horrekin amaitzeko edo egoerari bira emateko.
- c) Jakituria bananduta ez dagoen hezkuntza eredua. Ikaskuntza prozesua ezin daiteke jolas eta lan esparrutik banandu, ijitoek lanean eta jolasean ikasten dute. Bizitza bera da irakaskuntza prozesua. Horrela, hezkuntza praktikak ez dira toki batean ixten, ezta arloka banatzen ere. Gainera, jarraipen “pedagogiko” oro baztertzeko da. Horrenbestez, eskolan funtsezkoak diren prozesuen ukapena ematen da. Ez dago curriculumik, ez dago gai zerrendarik, ezta ebaluazio edo kalifikaziorik eta ezta parte hartze behartuan oinarritutako dinamikarik ere
- d) Berdintasunean oinarritutako egitura sozial baten erreprodukzioa. Bizi eredu kolektibo bat izatean, ekonomia kolektibizatu baten baitan bizitzean, jabetza pribaturik gabeko antolamendu eredua izatean, alienatu gabeko bizi eredu bat garatzean, bizi eredu bera da irakastearen duena. Hezkuntza modu inplizitu batean “agertzen” da ezkutaturik, komunitateko harreman sarean parte hartuz ikasten delarik, bizitzak bera, komunitate bizitzan, egunerokotasunean parte hartzeak “erakusten” duelarik.

- e) Bere helburua “bizitza ona” izango litzateke, natura eta giza harremanen arteko armonia bezala ulertua eta gaitz ororen askapenera bideratua, bake edo askatasun iraunkorra bilatzen duelarik.

Marjinaturiko landa-baserri zonaldeetako hezkuntza eredua

Aurreko bi ereduetan ikusi dugun moduan, kasu honetan ere hezkuntza eredu inplizitu baten inguruan hitz egingo dugu. Izan ere, ehunka urtetan boterearen eta konkistetatik “salbu” geratu ziren edo influentzia askoz gutxiago jasan zuten lurralde zonalde batzuetan garai bateko bizi komunitarioen aztarna batzuk geratu izan dira. Hala ere, boterearen esfera honetatik aparte egote honek bere historikotasuna ziurtatzen dituzten dokumentu idatzirik ez egotea dakar, nahiz eta salbuespenen bat edo beste egon (Santos eta Madina, 2012).

“Comunidades sin estado en la montaña vasca” liburuan Itziar Madina eta Sales Santosek historian zeharreko Euskal Herriko antolamendu sozial eta politikoaren errebaso labur bat egiten dute bizi eredu komunitarioaren aztarnak agerian jartzeko helburuarekin. Horrela, bizi eredu honen ezinbestek osagai diren elementuak deskribatzen dituzte modu labur baina esanguratsuan.

Liburuan esaten denez, erromatarrak euskal lurraldean sartu ziren momentuan ez zuten hierarkian oinarritutako inongo antolamendu sozialik aurkitu. Hori gainera argi erakusten digute garai hartako ehorzketa aztarnek, ez baitzegoen hilobien mailaketarik. Hau horrela, euskararen lurraldean Europa Mendebaldeko beste eremu batzuetako herrien ezaugarri antzekoak zeuzkaten: animismoan eta matriarkatuan oinarritutako sinesmenak, kolektibotasun izpiritu handi bat edo elkar laguntzan oinarritutako antolamendu anti-individualista bat.

Lurraldearen berezitasunengatik edo, badira Euskal Herrian zein Espainia osoan bizi eredu horren zantzu batzuk mantentzen dituzten zonalde marjinatu batzuk, estatuaren kontrolatik eta bizi eredu estandarizatu batetik pixka bat urruntzen diren tokiak alegia. Tartean lur jabetzaren eredua, auzolana, erabakiak hartzeko modua, festa eta ospakizunak, euskal erlijio mitologikoa, errituak zein sinbolismo ugari.

Bizi eredu hau oroitu eta paperera ekarri nahian Zuberoako probintziara garamatzate bi autoreek, izan ere, betan XX. mende amaiera arte antolamendu sozial

komunitarioaren elementu ugardun sistema egon baitzen, elkarren laguntzan oinarritua eta hierarkizazioa zein boterea ukatzen zuena.

Bizi eredu honek aurreko bi adibideen ezaugarri ugari ditu eta hezkuntzarekin lotze aldera, argi esan daiteke kasu honetan ere bizitza bere, egunerokotasuna zela hezten zuena modu askeago batean, izan ere Pedro Garcia Olivok gogoratzen digun moduan kultura guztiak askatasunaren mugatzaile ere badira neurri batean.

Eskola ezberdintasunaren hiltzaile

Hiru eredu hauek eskolaren subjektibotasuna konfirmatzeko balio digute. Hau da, P. Liégeois (1992) hitzetan “aukera kultural” bat soilik da eskola. “Kultura” transmisio modu bat, bide batez sistema produktibo eta ordena sozio-estatal baten beharrak asetzeko giza materiala sortzen duena. Hala ere, Kapitalismoaren hedapen prozesuarekin bat datorren heinean, hezkuntza eredu honek mundu osora zabaltzeko bideari ekin dio eta zoritxarrez aipatutako eskolarik gabeko hezkuntza eredu hauetara pixkanaka iritsi da. Eta iritsi ez bada ematen du iritsiko dela. Honek ezinbestean komunitate horien bizi ereduaren desagertzea ekarriko duelarik. Claude Grignonek (1991) *La escuela y las culturas populares* artikuluan esaten duenez, eskolak bizi eredu popular askoren suntsipenaren erreminta ezin hobeak izan dira.

Azken urteetan modan dagoen hitz bat “globalizazioa” da, baina gutxitan galdetzen gara prozesu honen oinarrian zer dagoen eta honek zer dakarren. Hau da, globalizazio prozesua okzidentalizazio prozesu bat dela ahaztu ohi dugu, hau da hegemonia planetarioa lortzea helburu duen gure, mendebaldeko gizartearen, bizi ereduaren, bizi antolakuntzaren eta bizi ikuskeraren zabaltze prozesu bat.

Honekin lotura status quo-arentzat mehatxagarri den “ezberdintasuna” “dibertsitate” bilakatzearen inguruan mintzo da Pedro Garcia Olivo:

La disolución de la diferencia en diversidad, proceso occidental en vías de mundialización, prepara el advenimiento de la Subjetividad Única, una forma global de conciencia, un modelo planetario de alma, un mismo tipo de carácter especificado sin descanso a lo largo de los cinco continentes. Cuanto más se habla de “multiculturalismo”, cuanto más diversas son las formas que asaltan nuestros sentidos, cuanto más parece preocupar —a nuestros gobernantes y educadores— el “respeto a la diferencia”, la “salvaguarda del pluralismo”, etc., peor es el destino en la Tierra de la alteridad y de lo heterogéneo, más se nos homologa y uniformiza. “Globalización” es sólo una palabra engañosa y rentable, que remite a la realidad de una occidentalización acelerada del Planeta. Y occidentalización significa, a la vez, exterminio de la diferencia exterior, esa diferencia arrostrada por las otras culturas, y disolución de la diferencia interior en mera e inofensiva diversidad. Por este doble trabajo homogeneizador se avanza hacia la hegemonía en la

Tierra de una sola voz y un solo espíritu, voz y espíritu de hombres dóciles e indistintos, intercambiables y sustituibles, funcionalmente equivalentes. Algo más y algo menos que el «hombre unidimensional» de Hebert Marcuse: el ex hombre, con su no-pensamiento y su pseudoindividualidad.

Eskolaren parte hartzea prozesu honetan erabakigarria da, estrategiaren muina dela ez esatearren. Instituzio hau bere izatean kulturaren, izaeraren, pertsonalitatearen homogeneizazio erakunde bat baita.

Horrela, urteen poderioz eta estrategia bat baino gehiago erabilita, sistemaren esku ikusezin honek aurrez aipaturiko komunitate eta bizi eredu askoren desagertzea ekarri du, ezberdina dena dibertso (berdinaren bariazio ezberdin) bilakatuz.

Herrialde ezberdinetako natiboen kasuan mendebaldarron eta oinarri kapitalistadun eskola honek, beste faktore askorekin batera (soldatapeko lana, partidu politikoen sorrera, osasunaren merkantilizazioa etab.) beraien bizi ereduaren, errealitatea ulertzeko moduaren eta orokorrean beraien tradizio eta ohitura historikoen amaiera dakar.

Komunitate asko “garapenaren” gezurra sinetsirik, “atzeratuak” daudela ustez, Estatuaren arma fin eta burutsu honen atzaparretan erori dira. Horrela, “multikulturalismoaren” aitzakiarekin Estatu harro ibili izan da handik eta hemendik eskolak eraikitzearen lan filantropikoa burutzen. Gainera komunitate askotako ordezkariak barru barruraino sartu dute amua, ahazturik eskola mendebaldeko gizartearen produktu bat dela eta beraz ezin daitekeela interkulturala izan, eskola kultura jakin batekoa baita (Garcia Olivo, 2009).

Badago ordea herrialde natiboekin lotuta lurralde batzuetan ematen den beste errealitatea bat. Mexikoko komunitate zapatistek edo Chileko Mapucheek esaterako Estatuari erresistentzia egiteko eta beraien kultura eta bizi eredu berreskuratzeko asmoarekin eskola Zapatista eta Mapucheak sortu dituzte, kasu honetan ere eskolaren analisi sakon bat egin gabe eta honek suposatzen duen guztian kontutan hartu gabe.

Bi kasuetan, modu desberdinean bada ere, eskolak izan dira irabazi dutenak eta nola ez eskolak irabazten duenean, askatasuna da gutxitzen dena.

Bakean dagoena bakean utzi dio esaera zahar batek. Zoritxarrez ordea mendebaldarron uneoroko eskusartze honekin, izan konkista basati moduan edo filantropismo intelektual eta ezkertiar moduan, beraien bakea eta bizi eredua garatzeko oztopoak jartzen dizkiegu etengabe.

Ijitoen kasuan, normalizazioaren eta homogeneousazioaren botereek, era guztietako estrategiak erabili dituzte hauen idiosinkrasiaren aurka: inklusiboak, eskusiboak, baztertzailak, integratiboak. Komunitateak sedentarizatzen, haurrak eskolarizatzen, helduak lan mundura zuzentzen eta abar saiatu dira urteetan zehar, beraien ezberdintasuna dibertsitate bilakatu nahian. Arrakasta ez da erabatekoa izan baina bai nabarmentzekoa, Ijito etnia eta beraien bizi eredua “berezi”, “ezberdin” egiten duten hainbat identitateri uko egitea lortu baitute. Horrela komunitate hauetako asko bere “identitatearen” baloreen erabat kontrako pertsonalitateak garatu dituzte sistemak asimilatu dituztelarik, ezberdin zena dibertso bilakatuz eta beste asko, bazterkeria eta eskusioa dela medio droga, delinkuentzia eta auto-suntsipenaren bide ilunera izan dira kondenatuak.

Horrela, Nomada zen tribu bat, etxeen etsai eta bidearen lagun zen komunitate bat, eskolara joaten ez ziren hurrekin, lantegiak gorrotatzen zituzten gizon eta emakumeekin, zeharkatzen zituzten estatuetao legenganako interes faltarekin eta beste bereizgarri askorekin, Mendebalde kulturak jasan ezin zuen askatasun eredu bat zena; ekonomikoki eta politikoki “esplotatu” ezina zen bizi eredu bat, “errentagarri” bihurtu ezinezkoa zen bizi ikuskera bat; gure formazioa sozio-politikoak gizartea kontrolatzeko eta aparatu produktibora bideratzeko erabiltzen dituen mekanismoak ukatzen zituen “etnia” bat; gure bizi ereduaren antagonikoa eta “ezberdina” zen bizitza bat, gure moldeetan barrena, Kapitalismoaren eta Kontsumismoaren sarean difuminatzen hasi da, “aniztasun kulturalaren” gezurrarekin bere oinarriko kulturari uko eginez.

Marjinaturiko zonalde eremuen kasuan Sales Santosek eta Itziar Madinak European etengabeko barne kolonizazio mugimendu konstante bat egon izan dela esaten digute, bere gora beheekin, baina helburu moduan komunitate “basati” edo estatirik

gabeko komunitateak “zibilizazioaren obrara” integratzea zuena. Ikusi dugun moduan, komunitate “basati” hauetan antolatua egon da historikoki Euskal Herriko mendi ingurunea eta pentsa daitekeen moduan hau ez da sekula izan boterea maite dutenentzat batere komenigarria, ezta errentagarria ere.

Beraz, kasu honetan ere, herrialde ezberdinetako natiboen eta ijito komunitateekin gertatu zen moduan antolamendu eta bizi eredu hau suntsitua izan zen “zibilizazio obra” horren aitzakiapean. Horrela, aurrez ikusi dugun antolamendu honen oinarriek ezin izan zioten eutsi feudalismoaren eta honekin batera indarrean zegoen kristautasunaren etengabeko goseari. Gertakizunak denboran txertatzea oso zaila den arren, pixkanaka sistema honen oinarriak (lurraren jabetza pribatua, gizartearen indibidualizazioa, antolamendu hierarkikoa...) indartzen hasi ziren.

Prozesu hau gainera modu ezberdinetara eman zen, beharra zegoenean biolentzia erabiliz eta bestela modu baketsu batean (baloreen aldaketetan, kanpokoak ziren ohitura eta sinesmen bitartez, hizkuntza berrien bitartez).

5. Utopia

Hasieran aipatu dugun moduan lan honen helburua ez da soluzio miragarrik inori ematea. Lan honen helburua errealitatea beste perspektiba orokorrago batetik ikustea da, aipatu ditugun betaurrekoak alde batean uztea. Horrenbestez, ondorioak irakurlearen (baten bat badago) esku geratzen dira.

Hala ere, interesgarria iruditzen zait ikuspuntu pareko batetik gaia analizatu duten kolektibo edo norbanako askok egin duten autuaren inguruan zerbait komentatzea, sistemaren barnean gauzak benetan aldatzea posible ez dela argudiatuz beraien bidea egiten hasi direnenak, Daniel Bellek *El fin de las ideologías* liburuan planteatutako etsipenari haize berria emateko intentzioarekin. Izan ere autore honek utopia iraultzailea erabat “gainditurik” eta “desprestigiaturik” gelditzean politika erreformista baten bidea bakarrik geratuko litzatekeela diosku, kimera teoriko guztitik at, beti ere sistema demokratiko liberalaren markoen barnean. Hala ere, esan genezake oraindik badela sistema honi bizkarra eman eta beste bat posible dela sinesten duten pertsona edo kolektiboak.

Iparraldean, Behe Nafarroan bada proiektu bat horren modan dagoen “eskola alternatiboa” kontzeptua eta jokamoldea gaindituz “eskolari alternatiba” bilatu nahi dioten kolektibo bat. 2011. urtean hasi zen proiektu bat da eta oraindik forma hartzen ari diren arren gaia oso landua daukate eta oso argi daukate norantz jo nahi duten, zailtasunak zailtasun. Horrela, Behauze herriko baserri batean garatu dute Bizi Toki izenez ezagutarazi duten proiektua. Beraien hezkuntza filosofiaren ardatz nagusienetako bat bizitzen ikasi edo esaera zahar batek dionen moduan “zer ikusi, hura ikasi” izango litzateke. Izan ere, Bizi Toki ez da eskola bat, bizitzeko modu bat baizik, kolektiboak adostu duten baloreen arabera (euskaraz bizi, elkar laguntza eta adiskidetasuna bizi, kolektibotasuna bizi politikoki, burujabetasuna eta autonomian bizi, jendarte ez kapitalistan bizi, elkarri emanez bizi, naturarekin orekan bizi, eskolari alternatiban bizi, pentsamolde kritikoa bizi, pasiozko bizitza bizi). Hau horrela, haurrek helduen bizi eredua “imitatuz” beraien bizitzen dituzten baloreak jasotzen dituzte, hau da, baserrian bizirik dauden baloreak modu inplizitu batean atxikitzen dituzte, egunerokotasunaren bitartez.

Proiektu honetako partaideak konturatu ziren hezkuntza libre bat ez dela posible librea ez den gizarte baten baitan, beraz hezkuntza libre bat egoteko antolamendu

politiko libre bat sortu beharra zeukatela, gizarte eredu honetatik at. Izan ere, ihesa borroka modu bat da.

“Ihesaren” ildo beretik doaz Espainia mailan zein mundu osoan sortzen ari diren Ekoaldea deituriko komunitate txikiak. Garai batean bertan behera lagata izan ziren herrixkak birpopulatu eta burujabetasunean bizitzeko autua egin duten komunitate txikiak, beraien bizi eredu eta balore sistema propioak sortuz. Eta noski kideen hezkuntzaren ardurak ere beraien hartuz.

Piotr Kropotkin (1897) pentsatzaile errusiarrek biharko egunean, kapitalismoa amaitzen denean eskolaren desagerpenerako pedagogia bat diseinatu zuen honela esanez: “Egunen batean berdintasunean oinarritutako komunitate bat sortzen bada, hau da komunitate aske bat, bertako pertsonak arduratu beharko dira beraien eta komunitatearen hezkuntza funtzioez, eskolarik gabe. Bizitza osoa izango da hezkuntza zentro bat, inguru guztia bilakatuko da eskola bat.”. Hala ere, iraultza etorri zen eta eskolak bizirik jarraitu zuen. Zergatik? Berdintasunean oinarritutako komunitatea ez zelako.

Pedro Garcia Olivo (2005) bestalde hezkuntzaren intsumisioaren inguruan mintzo da. Hau da, Ferrer Guardiaren dominatzeko artificio moduan kalifikatu zuen eskolaren eta orokorrean hezkuntza instituzionalizatutik at dauden hezkuntza proiektuetan parte hartzea eta hauek bultzatzea. Hau da, Estatuaren sareetatik kanpo dagoen kultura inguruetan murgiltzea izan zentro sozialak, kolektiboak, editore ez merkantilistak, era ezberdinetako kolektiboak, Gaztetxeak eta abar. Horrela irakaskuntza estrategia informalekin gizartearen auto-hezkuntza bultzatzea, eskolari eta orokorrean gizarte eredu honen zirrikitutatik barrena lan egiten.

Planteamendu hauek erakusten digute posible dela gauzak beste modu batera egitea, posible dela hezkuntza bere tokira, dagokion tokira, bizitzara bertara bueltatzea. Ahaztu dezagun *bizitzarako ikasi egin behar da* aurreiritzia eta utz diezaiozun bizitzari erakusten.

Hala ere, atsotitz batek dioen moduan “Ikusten ez duen begiak ez du minik”, eta ikusteko gaitasun hau galdu dugula deritzot, errealitatea distortsionatua hautematen dugularik. Izan ere, lan guztian sistemari kritika egin arren ohartu behar gara gu geu garela sistema, bera modu abstraktuak existitzen ez delarik. Gure pentsamendu

bakoitzean, gure ekintza bakoitzean, gure obedientzia une bakoitzean, gure onarpen bakoitzean, gure beldur eta emozio guztietan, “normaltasunaren” nahigabeko men egite horretan, “betiko” ohituren parte hartze horretan. Sistema gure buruan txertatua aurkitzen den disko gogor bat bezalakoa da, urterik urte informazioz betetzen joan dena ikusi eta irakatsi digutenarekin eta sentitzen ez duguna. Goethe poeta alemaniarrak zioen moduan ez dago modu faltsu batean aske sentitzen dena baino esklabo handiagorik. Horrenbestez, edozein aldaketa sozial egin aurretik beharrezkoa iruditzen zait norberak bere buruarekin aspalditik zintzilik daukan borroka zail eta neketsu hori egitea, orain arteko dena kuestionatzea disko gogor hau deskodifikatuz. Eta behin hori eginda auto-eraketa fase berri bat hastea. Honela bakarrik lortuko dugu hezkuntzaren helburu izan behar den askatasun, zoriontasun edo bizitza ona edukitzea. Beraz, berriz hutsetik hasteko prest?

6. Bibliografía

Alvarez-Uria, F. eta Varela, J., (1996) Eskolaren arkeologia, Euskal Herriko Unibertsitatea

Bell, D., (1964) El fin de las ideologías, Editorial Tecnos.

Bourdieu, P. eta Passeron, J. C., (1977) La reproducción, Barcelona, Laia.

Engels, F., (1992) El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado, Barcelona, Planeta-Agostini. [1ª edición en 1884]

Fernandez, M., (1991) Tres tristes tópicos. Archipiélago, 38, 72-78.

Foucault, M., (1988) Vigilar y castigar, Madrid, Siglo veintiuno. [1ª edición en 1975]

García Olivo, P., (2000) El Irresponsable, Sevilla, Las Siete Entidades (reeditado en 2008, Madrid, Brulot).

— (2003) Desesperar, San Sebastián, Iralka Editorial (reeditado en 2014, Zaragoza, La Revuelta Ediciones).

— (2005) El enigma de la docilidad. Sobre la implicación de la Escuela en el exterminio global de la disensión y de la indiferencia, Barcelona, Virus Editorial.

— (2009) La bala y la escuela. Holocausto indígena, Barcelona, Virus Editorial.

— (2009 B) El educador mercenario, Madrid, Brulot.

— (2016) La gitaneidad borrada, Los discursos peligrosos Editorial

Grignon, C., (1991) La escuela y las culturas populares. Archipiélago, 38, 15-19.

Huxley, A., (1932) Un mundo feliz, Inglaterra, Plaza & Janés

Holt, J., (1982) El fracaso de la escuela, Madrid, Alianza. [1ª edición en 1977]

Ilich, I., (1985) La sociedad desescolarizada, Editorial Joaquín Mortiz, México (reeditado en 2011, Madrid, Brulot)

Kropotkin, P., (2001) El Estado, en www.cgt.es (Biblioteca digital "Difunde la idea"). [1ª edición en 1897]

Liégeois, J. P., (1992) La escolarización de los niños gitanos y viajeros, Madrid, Presencia Gitana.

Morin, E., (1999) Los siete saberes necesarios para la educación del futuro, París, Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura (UNESCO)

Moncada, A., (1991) Para un análisis radical de la educación. Archipiélago, 38, 27-32.

Nietzsche, F., (2000) Sobre el porvenir de nuestras escuelas, Barcelona, Tusquets. [1ª edición en 1872]

Ong, W. J., (1997) Oralidad y escritura. Tecnologías de la palabra, México, Fondo de cultura Económica

Querrien, A., (1979) Trabajos elementales sobre la Escuela Primaria, Madrid, La Piqueta.

Reimer, E., (1981) La escuela ha muerto, Barcelona, Guadarrama/Punto Omega. [1ª edición en 1970]

Varela, J., (1991) Una reforma educativa para las nuevas clases medias. Archipiélago, 38, 65-71.

Vogt, Ch., eta Mendel, G., (1975) El manifiesto de la educación, Madrid, S.XXI.

Walkerdine, V., (1991) Enseñanza comprensiva y educación progresiva en Gran Bretaña. Archipiélago, 38, 20-26.